

LABURBIRA 2024 film laburren zirkuitu ibiltaria maiatzaren 9an Andoainen

Andoainen, 24-05-06.- 2024ko LABURBIRAK, euskarazko film laburren zirkuitu ibiltariak, 8 film laburrekin osatutako bilduma aparta eskainiko du aurtengo edizioan.

Euskaraz sortu eta ekoiztako film laburren zirkuitua da eta aurtengoa bere 21. edizioa beteko du. Alde batetik euskal zinemagintza hauspotzea du helburua, eta bestetik, zinemagileei beren lanak erakusteko aukera ematea eta herritarrei euskaraz sortutako film laburrak ezagutaraztea.

Urte hauetan guztietan bide arrakastatsua egin du LABURBIRAK eta euskal zinemagintzaren erakusleho erreferentzial bihurtu da. Izan ere, zinema ekoiztea izatez da jarduera zail eta garestia. Ondorioz, film laburren sorkuntza da zuzendariak zinemaren industrian hasteko daukaten modu bakarra. Zentzu honetan, LABURBIRAK berebiziko garrantzia du autoreei eta beraien lanei ikusgarritasuna emateko orduan, eta zirkuitu egonkor eta zabala eskaintzen duen neurrian, industria osoaren pizgarri moduan ere eragiten du.

Aurtengo edizioa eduki zein estiloz denetariko pelikulekin dago osatuta, gaur egungo euskal zinemagintzaren erakusgarri. Hauexek dira izenburuak eta egileak:

- BABESA; Ander Iruretagoyena
- DENA ASMATUTA DAGO; Jone Arriola
- KATALINAREN ZORIA; Guillermo Ordás
- ERRO; Amaia Lejarreta
- MUNDU BERRI BAT; Mikel Alvarez
- ZIRRARA; Ane Cuesta
- TALKAK; Ilune Díaz eta Jordi Nuet
- BETIZU BURU; Kim Maiteny

MAIATZAREN 9an, ostegunean, Bastero Kulturguneko ekitaldi aretoan, arratsaldeko 19:00etan aukera izango dugu aurtengo bildumarekin gozatzeko. **Laburbiraren aurtengo edizioari buruzko informazioa [esteka honetan](#)** aurkitu dezakezue.